



EBAZPENA, 2020ko apirilaren 17koa, Hezkuntzako Sailburuordearena, zeinaren bidez Hezkuntza Sailaren mendeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten baitzaie ikastetxe publikoen barne-antolamendua berritzatzeko proiektuan parte hartzeko (HAUSPOA).

Hezkuntza Sailak onartu duen "Heziberri 2020" Planak hauxe du helburu: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin, gure sistemaren ekitaterantz eta bikaintasunerantz aurreratzen jarraitzeko. Plan horretan sartuta dagoen "Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren markoa"-k, hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo nagusiak batzen dituen proiektuaren arabera, ikastetxeen autonomia da hezkuntza hobetzeko alderdi nagusietako bat eta ezinbesteko baldintza Hezkuntza Komunitate bakoitzaren premiei erantzutea oinarri duen edozein proiektu gauzatzeko. Zentzu honetan, barne antolakuntzaren gaineko autonomia da sistemaren hobekuntzari laguntzen dion elementetako bat. Horregatik, 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculama zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, bere V. Kapituluan zera eskatze die ikastetxeei: autonomian sakontzeko proiektuak garatu ditzaten, arlo pedagogiko eta curricularrean zein antolakuntzan eta ekonomi eta pertsonal kudeaketan, irakaste prozedurak eta ikasleen emaitzak hobetzeko.

Ildo honetan, Hezkuntza Sailak berritzatze-prozesuak bultzatzen ditu unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, deialdi espezifikoek bidez zein zuzenean, aldaketak sartzeko jarduera, proiektu eta esperientziak proposatuta, irakaskuntza- edo antolakuntza-praktikak hobetuko dituztenak, eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko aukera emango dutenak.

Funtsezkoa da ikastetxeen berrikuntzaren esparruan lan egitea, sistemak bikaintasunaren bidea jorra dezan. Ekimen arrakastatsuak jasotzen ditu ISEI-IVEI erakundeak egindako "Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak" txostenak, eta erreferentzia egokiak izan daitezke horiek gainerako ikastetxeentzat. Hala ere, ikastetxe bakoitzak bere ingurunearen eta hezkuntza-komunitatearen ezaugarrietara egokitu behar ditu ezarri nahi dituen berrikuntzak, berrikuntza horiek ekarpen onuragarria egin dezaten ikasle guztien hezkuntza-arrakastarako bidean.

Horrenbestez, ikastetxeen barne-baldintzak aldatu behar dira hobekuntzak txertatzeko, bai ikasgelaren jardueran eta lan-metodologian, bai irakaskuntzaren prozesuaren beste alderdi funtsezko hauetan ere: eskola-denboren, giza baliabideen eta bitarteko materialen kudeaketan, espazioen antolamenduan, eta beste alderdi batzuetan.

Esperientziak zein horri buruzko ikerketa ugariak erakusten dutenez, baliabideek irakaskuntzan duten garrantzia eta inpaktua mugatua da. Izan ere, baliabideak izatea beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa, emaitzen hobekuntza ahalbidetzeko, eta hori horrela, beharrezkoa izango da lehen adierazitako alderdietako batzuei begiratzea.

Bestalde, ezin da ahaztu gizartean izandako aldaketa eta aurrerabideek hezkuntzaren ikuspegia zabaldu dutela, eta hori horrela, hezkuntza formala ez da orain ikaskuntzaren hezkuntza-alor edo -esparru bakarra, eta horrenbestez, espazioaren eta eskola-denboraren kontzeptua irakastorduetik haratago doa. Izan ere, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eskolara bertaratzearen mende soilik zertan egon gabe. Era berean, ikasleak bere bizitza ikastetxetik kanpo garatzen duen ingurunea garrantzitsua da ikaslearen sozializazioaren eta ikaskuntzaren garaian. Ikaslearen garapen integralean ikastetxeak bete behar duen funtzioa berriz aztertzea eskatzen du horrek guztiak.



Azkenik, ikastetxe efizientearen ikuspegitik beharrezkoa da eskola-komunitatearen ikuspegi integrala izatea, komunitatea osatzen duten pertsona guztiak arrakastaren sustatzaile bihurtzeko. Izan ere, ulertu behar da guzti-guztiak hobekuntzarako faktore potentzialak direla, eta, sektore bakoitzak bere funtzioak betetzen baditu ere, proiektu erkide batek gidatu behar ditu guztiak ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen antolamendu akademikoa gaur egun mugatzen duten alderdietako asko (indarreko ordutegia eta eskola-egutegia, irakas-eskolen iraupena, espazio eta baliabideen erabilera, eta abar) denborak aurrera iraun dute aldaketa handirik izan gabe. Antolamendu-eredu berriak esperimendatzea lagungarria izan daiteke ikasleen emaitzak hobetzeko.

Ikastetxeen jardun ekintzailea eta esperimendazio-nahia bultzatu eta ahalbidetu behar du Administrazioak, egungo lege-esparruak horretarako eskaintzen dituen malgutze-posibilitateak erabilita. Ildo horretan, 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculama zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak V. Kapitulu osoa dedikatzen du ikastetxeen autonomia, bere ekimen esparru guztietan, bultzatzeko.

Aurrez azaldutako hori guztia aintzat hartuta, Hezkuntza Sailburuordearen 2013ko maiatzaren 22ko ebazpena argitaratu zuen Hezkuntza Sailak, eta, haren bidez, deialdia egin zitzairen Hezkuntza Sailaren mendeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei ikastetxe publikoen barne-antolamendua berritzatzeko proiektu pilotu batean (HAUSPOA) parte har zezaten. Proiektu hori 2013-2014 ikasturtean abiatu zen, eta hamahiru ikastetxek parte hartu zuten, hautatuak izan ondoren. Proiektu pilotu horren emaitzei erreparatuta, deialdi berri bat egin zen 2015 apirilaren 30ko Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenaren bitartez, helburu berarekin, eta horren ondorioz, aurreko 13 ikastetxeak gainera beste 15 hautatu ziren. Halaber, 2018ko apirilaren 30eko ebazpenaren bidez beste deialdi bat egin zen, eta oraingo honetan 34 ikastetxe berri hautatu ziren: 2018ko ekainaren 19ko ebazpenak 24 ikastetxe proiektuan sartzea onartu zuen, lehen instanzian, eta urte bereko uztailaren 2ko ebazpenak beste 10 ikastetxe proiektuan sartzea onartu zuen, denak Ikuskaritzaren jarraipen- eta gainbegiratze-plan batekin eta sare-lanaren bidez ikastetxe berriei laguntzeko eskaini ziren lehen deialdiko ikastetxeen taldearen laguntzarekin, ikastetxe berri hauek horrela eskatuz gero.

Ikusita Hauspoa Proiektua garatzen duten ikastetxeek egindako balorazioaren ondoren argi geratzen dela sareko ikaskuntzaren paradigma berri bat dela, berdinen artekoa eta ikasleen gidaritzapeko irakaskuntza-rol batekin, lankidetzeta-lana sustatzeko, Heziberri 2020 Planak proposatzen dituen zeharkako kompetentziak hobetzeko eta formalak ez diren inguruneetan ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko, beste deialdi bat egiten da, esperientziari jarraipena emateko. Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. Artikulua.- Deialdiaren xedea.

1.- Ebazpen honen xedea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoei deialdia egitea ikastetxeen barne-antolamendua berritzatzeko HAUSPOA proiektuan parte har dezaten 2020-2021 ikasturtetik aurrera.

2.- Egun proiektuan parte hartzen duten hirurogeita bi ikastetxeek ekimenean jarraitu nahi badute, berriro eskatu behar dute parte hartzea. Dena den, Ikuskaritzak proiektuaren ebaluazio positiboa egin baldin badio ikastetxeren bati, ebazpen honen 5.6. artikuluan adierazten den dokumentazioa soilik aurkeztu beharko du ikastetxe horrek, eskaerarekin batera. Aurreko deialdian parte hartu eta ebaluazio positiborik lortu ez duten ikastetxeek berriro eskatu behar dute proiektuan parte hartzea, proiektuan sartu nahi duten ikastetxe berrien baldintza berberetan.



2. artikulua.- Deialdiaren helburuak.

Deialdi honen helburua da gaur egun indarrean dagoen esparrua malgutzea, ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak eta eskola-denborak berrantolatzen laguntzeko, eta, horren bidez, irakaskuntzaren kalitatea hobetu eta ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzeko.

Honako hauek dira deialdi honekin lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Ikastetxeen **kalitatea** handitzea, autonomia indartuz urratzeko bikaintasunerako bidea.
- Eskola-denboren **kudeaketa-eredu berriak** erabili eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen **ekitatea** hobetzen laguntzea, eta horretarako, jardueren eskaintza bat egitea. Eskaintza horrek ez die kostu gehigarriak eragin behar familiei eta ez du ikastetxearen egungo zerbitzu-eskaintza desagerrarazi behar. Eskaintza horrek ekarpen bat egin behar du **ikasle guztiek hezkuntza-arrakastaren bidea urra dezaten**.
- Ikasleek, eskola-orduetatik kanpo, **kompetentziak** eskura ditzaten bultzatzea.
- Emaizten eta bizikidetzaren **hobekuntza** sustatzea.
- **Euskeraren erabilera** bultzatzea eskola orduz kanpo.
- Ikasleen **autonomia** lantzea.

3. artikulua.- Deialdiaren ezaugarriak.

1.- Egun diharduten 62 ikastetxeetaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako beste 25 ikastetxe berrik parte har dezakete gehienez. Kopuru hori handitzeko aukera izango da, kalitate kontrastatuko proiektu gehiago aurkezten diren neurrian. Ebazpen honen 8. artikuluan adierazten den hautaketa-batzordeak hartuko du horri buruzko erabakia.

4. artikulua- Proiektua aurkezteko ezinbesteko eskakizunak.

Irakasleen Klaustroak, Ordezkaritza Organo Gorenak eta/edo Eskola Kontseiluak eta ikastetxean ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak (guraso gehien biltzen dituenak) onartu behar dute proiektua, argi gera dadin Ikastetxeko Proiektua dela hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa duena.

Departamentu guztiek eta DBHn aritzen diren irakasleen %50ak gutxienez parte hartu behar dute proiektuan. Parte-hartze hori ikasleekin hartu-eman zuzenean gauzatuko da, ohiko eskola-jardunalditik kanpo ikasleei eskaintzen zaien ordutegian. Ildo honetan, ohiko ebaluaketetan ikas arloren bat gainditzen ez duen ikasleen parte hartzea ezinbestekoa izango da.

Ikastetxeak orain arte jatetxe-zerbitzua eman baldin badu, ez da inoiz ere hura kenduko proiektuan parte hartzeagatik. Eta garraio zerbitzuari dagokionez, aurkezten diren proposamenetan argi azalduko da proiektua bateragarri edo konpatiblea dela zerbitzu honekin.

Ez da onartuko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituen proiekturik.

5. artikulua- Proiektua lantzea eta aurkeztea.

1.- Ikastetxearen zuzendaritzak eskatu eta landu behar du proiektua.

2.- Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari zuzendu behar zaio eskaera.

3.- Eskaerak elektronikoki bidaliko dira, dagozkien eranskinekin batera, ikastetxe publikoentzako



atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>). Atari horretan, deialdi honen fitxa argitaratuko da, bai eta deialdiarekin lotutako berritasunak ere. Fitxa horretan, ikastetxe eskatzaileek eskura izango dituzte gidaliburuak eta eskaerak egiteko jarraibideak.

4.- Eskabideak hogeita bat eguneko epean aurkeztu beharko dira, ebazpen hau sinatzen den gunetik hasita. Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenaren arabera, aipatutako epea zenbatzen hasiko da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua edo, hala badagokio, haren luzapenak indarra galtzen duenean. Hala ere, abisua sartuko da Sailaren webgunean, aipatutako epearen zenbaketa berri emanez.

5.- Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

- a) Proiektuaren deskribapen xehatua. Proiektuaren beraren helburuak, eskola-arrakasta handitzeko xedez antolamendu akademikoan proposatzen diren aldaketak eta horien justifikazioa bilduko dira proiektuan. Adierazleak ere bilduko dira, proiektuaren betetze-maila neurtzeko.
- b) Zuzendaritza Taldearen, Ordezkaritza Organo Gorenaren, Klaustroaren eta ikastetxeko Ikasleen Guraso Elkartearen Zuzendaritza Batzordearen aktak, proiektua aurkeztea onartu zutenekoak.
- c) Proiektuan parte hartzeko konpromisoa, proiektuan parte hartuko duten irakasle guztiek sinatua, bai eta parte hartuko duten jarduerak eta iraupena ere..

6.- Orain arte Hauspoa proiektuan parte hartu eta Ikuskaritzaren ebaluazio positiboa jaso duten ikastetxeek aurkeztu behar duten dokumentazioa:

- a) Ordezkaritza Organo Gorenaren eta/edo Eskola Kontseiluaren akta, 2020-2021 ikasturtean Hauspoa proiektuan parte hartzea onartzen duena.
- b) Hauspoa proiektua hobetzeko plana, eta, haren baitan, zehaztuta, proposatzen diren aldaketak eta haien justifikazioa, helburuen lorpena neurtzeko adierazle berriak eta ikastetxeak proiektuan barneratu beharrekoak irizten dituen gainerako alderdiak.

6. artikulua- Ikastetxearen proiektuaren egitura.

Proiektuak koherentea izan beharko du ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren helburuekin, ikastetxearen erabaki eta proiektu handiak egituratzen, koherentziaz jokatzeko eta bideratzen dituen dokumentua baita. Onartuz gero, horien ondoriozko helburuak eta jarduera nagusiak ikastetxearen Urteko Planean sartu beharko dira..

Bereziki, honako idatz-zati hauek bildu behar ditu gutxienez:

a) *Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak.* Irakasteko ez den eskola-ordutegiaren berrantolamendua eta irakastorduen aldaketa bat lortzeko, ezinbestekoa da familien gehiengo zabalaren adostasuna, eta ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkarte indartsuenak proiektua onartzearen bidez zehaztuko da hori. Era berean, oso beharrezkoa da gurasoak inplikatzeko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza erakargarria berrantolatzea.

Dena den, helburua irakasteko ez diren jardueretan ikasleen parte-hartze albat handiena bultzatzea bada ere, aukerakoa izango da parte-hartze hori, eta familien esku geratuko da beren seme-alabek ikastetxearen jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuei eskainiko dioten. Parte-hartzeari buruzko aukerakotasun hori, 4. artikuluan adierazten den bezala, ez da aplikatuko ohiko ebaluazioetan irakasgairaren bat gainditzen ez duten



ikasleen kasuan; kasu horretan, haien parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

Eskola-komunitatearen parte-hartzea proiektuaren ardatza izan behar duela aintzat hartuta eta kontuan izanda ikasleen eta familien inplikazioa ezinbestekoa dela ikastetxearen antolamendua efizientea izan dadin, parte-hartze hori sustatzeko estrategiak zehaztu behar ditu proiektuak.

Ikasleen parte-hartzeari dagokionez, proiektuak argi azalduko ditu ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak eta horien hartzaileak, baita ikaslearen ekimen autonomoa lantzeko proposatzen diren jarduerak eta erabiliko diren baliabideak ere.

Proiektuaren bideragarritasuna bultzatze aldera, tokiko eta lurraldeko erakundeen, fundazioen, erakundeen eta bestelako eragileen laguntza eskatu eta kudeatuko du ikasleen guraso-elkarteak.

b) *Ikasleen irakastordutegia aldatzeko proposamenak*. 2019-2020 ikasturtearen ordutegitik abiatuta, 2020-2021 ikasturterako proposaturiko aldaketak zehaztuko dira. Honako puntu hauek zehaztu behar ditu proposamenak:

- b.1) Asteko 30 orduak antolatzeko irakastordutegi berria. Irakastordutegiko aldaketak ez du murrizketarik ekarriko ikasturte osoaren irakas-denboraren kantitatean.
- b.2) Ordutegi-proposamena, 6 ordukoa gutxienez astean eta 180 ordukoa gutxienez urtean (ez dira irakastorduak izango). Ahalik eta xehetasun handienaz zehaztu behar dira proposatzen diren jarduerak, helburuak, lorpen-adierazleak eta erabiliko diren baliabideak.

Proiektuko jarduera-eskaintzak asmo handiko aurreikuspenak sorrarazi behar ditu ikasleen hezkuntza-arrakastari begira eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-mailari dagozkion kompetentziak garatzeko xedeari erreparatuta.

Idatz-zati honetan proposatzen diren jarduera guztietan parte hartuko duten irakasleak eta pertsona arduradunak zehaztu beharko dira. Era berean, ikasle hartzaileak nor diren zehaztuko da jarduera bakoitzean.

Era berean, proiektuan zehaztu behar da nola erabiliko diren irakasteko ez den ordutegian ikastetxearen espazioak eta baliabideak, eta jarduera horien koordinazioan eta espazio eta baliabide horien erabileran parte hartuko duten pertsonak ere adierazi behar dira.

c) *Irakasleen dedikazio-orduak berrantolatzeko proposamenak*. Proiektuak argi eta garbi zehaztu behar du zer proposamen egiten duen ikastetxeak irakasleen dedikazioaren berrantolatze osoa egin eta ikasleen ordutegian proposatzen diren aldaketak bideragarriak direla bermatzeko: irakastorduak, irakastorduetatik kanpoko presentzia-orduak, etab. Alde horretatik, irakastorduei dagozkien dedikazio-tarteak zehaztuko dira eta irakastorduetatik kanpoko saioen ordutegi-antolamendua adieraziko da.

Berrantolatze horrek ez ditu irakasleen lan-baldintzak urratuko. Horrela, ikasleentzat proposaturiko irakas-jardueraren eta irakasteko ez den jardueraren berrantolatzea bermatu eta gauzatzeko, irakasleen iritzia beharko da. Ildo horretan, zuzendaritza-taldeak irakasleekin adostu ahalko ditu formula berriak irakasleen dedikazio-araudia aplikatzeko, proiektuaren hezkuntza-arrakasta bermatze aldera.

Ikasleen irakastordutegi jarraituko proposamenek ez dute murrizketarik eragingo irakasleen dedikazio-orduetan.

7. artikulua- Zuzendaritza-taldearen lidergoa eta funtzioak.

Zuzendaritza-taldearen konpromisoa eta lidergoa ezinbestekoa da proiektuak arrakasta izateko,



eta horrenbestez, honako funtzio espezifiko hauek bete beharko ditu:

- Sektore guztietako ordezkarien iritzia eta ekarpenak biltzea proiektua idatzi aurretik.
- Irakasleen parte-hartzea bultzatzea, proiektuaren proposamen berritzaileenak zehazteko.
- Proiektuaren informazio-prozesua kudeatzea, eskola-komunitatea osatzen duten sektore guztiekin izan beharreko elkarrizketa jarraitua bermatuta.
- Familien, irakasleen, ikasleen eta abarren parte-hartze demokratikoa bermatzea, proiektua onar dezaten. Komunitatearen hezkuntza-agente guztiek proiektuaren elaborazioan parte hartzeko formulak bilatuko dira.

Horrez gainera, ikastetxea proiektuan parte hartzeko aukeratzen badute, hauek egin behar ditu zuzendaritza-taldeak:

- Proiektuaren jarraipen etengabea egin behar du eta Jarraipen- eta hobekuntza-batzordearen (12. artikulua) burutza-lana egin behar du.
- Proiektuaren amaierako ebaluazio-prozesuan parte hartu behar du eta Ikuskaritzari lagundu behar dio lan horretan.
- Amaierako memoria bat egin behar du, ebazpen honetako 14. artikulua arautzen duen moduan.

8. artikulua.- Barematu eta hautatzeko batzordeak.

Hautaketa Batzorde bat eratuko da eskaerak hautatzeko, horretarako propio sorturikoa, eta proiektuan parte hartzeko aukeraturiko ikastetxeen zerrenda proposatuko dio Hezkuntzako sailburuordeari. Honako hauek osatuko dute Batzordea:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona, presidente- lanetan.
- Ikuskatzaile orokorra edo horrek eskuordetzen duen ikuskatzailea.
- Hezkuntza Berriztatzeko arduradun bat.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena

9. artikulua.- Baremoa eta baremazio-irizpideak.

Honako baremoaren arabera balioetsiko ditu Batzordeak aurkezturiko proiektuak:

a) Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak arauturiko dagokion hautaketa-prozesuaren ondoren lau urteko aldirako izendaturiko zuzendaritza egonkorra duten ikastetxeak: *5 puntu*.

b) Egoera sozioekonomiko ahuleko ikasleak dituzten ikastetxeak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasle bekadunak dituztenak): *5 puntu arte*.

- Ikasle bekadunen ehunekoa %30 eta %45 bitartekoa duten ikastetxeak: *0,5 puntu*.
- Ikasle bekadunen ehunekoa %45 eta %60 bitartekoa duten ikastetxeak: *1 puntu*.
- *Ikasle bekadunen ehunekoa %60tik gorakoa baldin bada: 3 puntu*.
- Hamaiaka Esku proiektuan parte hartzen duten edo HBI baliabidea duten ikastetxeak: *5 puntu*.

Aurreko bi idatz-zatiei dagokien puntuazioaren esleipena ofizioz egingo da, Hezkuntza Administrazioan eskuragarri dauden datuen arabera.



c) Irakasleek proiektuak eta eskaintako jardueretan izango duten parte-hartzea:

DBHn irakasten duten irakasleen % 50ek, gutxienez, parte hartu beharko du nahitaez, eta parte-hartze hori **zuzenean gauzatu behar da ikasleekin, ikasleekiko dedikazio-orduetan, ohiko eskola-jardunalditik kanpo**. Ikastetxeko irakasleek proiektuan duten parte-hartze maila baloratzeko, parte hartzen duten irakasleen izen-zerrenda jasoko da, bai eta parte hartuko duen jarduera, jardueraren iraupena (urtekoa, hiruhilekoa, astekoa ...) eta haren hartzaile diren irakasleen maila ere.

Irakasleriaren parte-hartzearen maila:

- %50 eta %60 bitartean: *5 puntu.*
- %60 eta %70 bitartean: *10 puntu.*
- %70 eta %80 bitartean: *15 puntu.*
- %80 baino gehiago: *25 puntu.*

d) Adieraziriko eskola-komunitatearen parte-hartzea ikastetxeko Ikasleen Guraso Elkarteak antolaturiko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza bat proiektuan bilduta: *gehienez 15 puntu*, aurreikusiriko jardueren kopuruaren eta kalitatearen arabera.

e) Aurkezturiko proiektuaren balioespena: *Gehienez 55 puntu*. Honako alderdi hauek kontuan hartuko dira proiektuaren balioespenean:

Proiektuak ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta Urteko Planarekin duen lotura-maila balioetsiko da, batez ere jarritako hobekuntza ekintzekin.

Ikastetxeak ikasturtean zehar programaren koordinazioa eta jarraipena bermatzeko eta emaitzak ebaluatzeko egiten dituen planteamenduak balioetsiko dira.

Era berean, kontuan hartuko dira ikasleen parte-hartzea sustatzeko neurriak, haien autonomia pertsonala indartzekoak eta eskola-giroa hobetzekoak, eta familien, hezkuntza-komunitatearen eta inguruneke beste eragile batzuen parte-hartzea indartzeko neurrien sustapena.

Balioetsi egingo dira, era berean, ikastetxeko espazio eta baliabideen optimizazioari buruzko alderdiak biltzen dituzten proposamenak, haien erabilera eta aprobetxamendua ahalbidetuz irakasteko ez den ordutegian. Alde horretatik, lehentasuna izango dute ikastetxeak eskola-curriculumaren esparruan dituen espazioak modu berritzailean erabili eta ikasleen kompetentziak garatzeko aukera ematen duten jarduerak.

Aintzat hartuko dira, era berean, ordutegiak modu berritzailean kudeatu eta antolatzeko proposamenen lanketak. Proposamenek kontuan hartu behar dituzte jardueren ezaugarriak, haien iraupena, banaketa, ikasleen arreta-gaitasunean duten eragina eta metodologia-aukeretara egokitzeko moldagarritasuna.

Ikastetxeetan ekitatea bermatzen laguntzen duten proposamenak balioetsiko dira eta horretarako familiei kostu gehigarriak eragiten ez dieten jardueren eskaintza egitea. Era berean, arreta berezia jarriko da hezkidetzaren sustatzen duten jardueretan.

Ikastetxearen proposamen berritzaileak kontuan izango dira irakastorduek osatzeko garaian:

- Bereziki balioetsiko dira hezkuntza inklusiboa indartzeko xedea duten jarduerak, ikasteko estiloak eta erritmoak kontuan hartzen dituztenak, lehentasunez euskararen erabilera indartuz irakurketarekin, literatura-solasaldiekin, idazketa edo ahozko adierazpeneko tailerrekin eta steam kompetentziekin lotutako



ekimenen bidez.

- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako konfinamendu-egoeraren ondorioz 2019/20 ikasturtean behar adina landu ez diren curriculum-alderdietan sakontzeko jarduerak garatzea baloratuko da.
- Era berean, curriculum arrunta aberastea dakarten jarduerak lantzea eta zehaztea baloratuko da.
- Irakurketa Planaren diseiñua, ezarpena eta garapena ere baloratuko da.
- Eskola jasarpene prebenitu eta lantzeko egitura edota organo egonkorrak egotea elkarbizitza hobetzeko baloratuko da: talde dinamizatzailea, elkarbizitzarako behatokia, elkarbizitza batzordea, etab.

Arreta berezia jarriko zaio eskola-emaizta onak lortu dituzten jardun-ildoak garatzeari, eta, bereziki, ISEI-IVEI erakundeak egindako "Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak" txostenean jasotzen den "Jardunbide egokien zerrendan" jasotako jardunbideak lantzeari. Horien artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, ikasleen zailtasunak goiz antzematea eta zailtasunak gainditzeko arin esku hartzea, ikasleen lanaren jarraipen oso estua egitea, tutoretza pertsonalizatua, familiarekin harreman estuan eta lankidetzan jardutea eta berrikuntza hainbat arlotan.

10. artikulua.- Hautaturiko ikastetxeen zerrenda.

1.- Hautatua izateko, ikastetxeak aurkezturiko proiektuak gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu baremoaren e) idatz-zatian, baita gutxienez 60 ere baremoa osorik hartuta.

2.- Aurreko idatz-zatian aipaturiko eskakizunak biltzen dituzten puntuetatik guztizko puntuazio handiena lortu dutenak hautatuko dira, harik eta deialdi honetan bilduriko ikastetxeen gehieneko kopurura iritsi arte edo hautaketa-batzordeak egindako gehikuntzaren ondoriozko kopurua iritsi arte.

3.- Baremoaren osotasunean puntu-berdinketa izanez gero, berdinketa hausteko honako irizpide hauek ondoz ondo aplikatuta ordenatuko dira berdinduriko ikastetxeak:

- a) Puntuazio handiagoa proiektuaren balioespenean.
- b) Proiektuan parte hartzen duen ikastetxeko irakasleen ehuneko handiagoa.
- c) Eskola-komunitatearen parte-hartzearen idatz-zatian lorturiko puntuazio handiena.
- d) Ikasle sozialki behartsuen ehuneko handiena.

11. artikulua.- Hezkuntza Sailaren lankidetzak.

1.- Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzaren eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren, Berritzeguneen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dute hautaturiko ikastetxeek proiektua garatzeko. Era berean, ikastetxeek elkarrekin lan egiteko aukera bultzatuko da, eskarmentu handiagoa eta praktika onak dituzten ikastetxeen gidaritzapean.

2.- Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, Hauspoa proiektua ezartzeko lehen aldiz hautatutako ikastetxeek 6 orduko kreditua izango dute bi ikasturtetan, eta kreditu hori erabili beharko dute proiektuaren jarraipena egiteko, proiektuan parte hartzen duten gainerako ikastetxeekin batera lan egiteko eta proiektuaren amaierako ebaluazio-txostena betetzeko. Zuzendaritza-taldeak eginkizun horiek betetzeko irakasle egokiak zehaztuko ditu,



eta irakasle horien artean banatuko du aipatutako ordu-kreditua.

12. artikulua.- Jarraipen- eta hobekuntza-batzordea

Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, Jarraipen eta Hobekuntza Batzorde bat sortuko dute ikastetxeek, honako pertsona hauek osaturikoa:

- a) Ikastetxeko zuzendaria.
- b) Proiektuaren irakasle arduraduna, halakorik izanez gero.
- c) Ikastetxeko aita edo ama bat.
- d) Ikastetxeko ikasle bat.
- e) Berritzeguneko pertsona bat.
- f) Ikastetxeko ikuskatzailea.

13. artikulua.- Proiektuaren ebaluazioa.

1.- Dagokion ikasturteko hirugarren hiru hilekoan ebaluatuko dira aukeratutako proiektu guztiak. Ebaluazio honen helburua da Hauspoa Bigarren Hezkuntzako kalitatea hobetzeko balio duela egiaztatzea.

2.- Hezkuntza Ikuskaritzak egingo du ebaluazioa, eta, ebaluazio horretan, ikastetxe parte-hartzaileen proiektuen helburuen betetze-maila aztertuko da. Irizpide hauek erabiliko dira ebaluazioa egiteko:

- Proiektua:
 - o Diseinatutako proiektuaren eta gauzatutako proiektuaren arteko erlazioa eta koherentzia.
 - o Gauzatutako proiektuak duen lotura ikastetxearen hezkuntza- proiektua eta Urteko Planarekin.
 - o Proiektuaren koordinazioa eta jarraipena
 - o Proposamen berritzaileak lantzea: metodologia berriak, baliabideen, espazioen eta denboren erabilera berritzailea
 - o Proiektuaren helburuen eta ikastetxe bakoitzaren lorpen-adierazleen betetze-maila
 - o Irakurketa Planaren diseinu eta ezarpena
 - o Eskola jasarpena prebenitu eta lantzeko egitura edota organo egonkorak egotea, elkarbizitza hobetzeko: talde dinamizatzailea, elkarbizitzarako behatokia, elkarbizitza batzordea, etab.
 - o Datuak erregistratzea
- Parte-hartzea:
 - o Ikasleek, familiek, hezkuntza-komunitateak eta inguruko beste eragile batzuek proiektuan parte har dezaten sustatzeko estrategiak
 - o Irakasleen parte-hartzea: parte hartu duten irakasleen kopurua, ordu-dedikazioa, koordinazioa, ikasleei eta familiei emandako arreta
 - o Ikasleen eta familien parte-hartzea proposatutako jardueretan
 - o Ikastetxeko guraso-elkartearen parte-hartzea eta inplikazioa
- Jarduerak:
 - o Egindako jardueren kopurua eta tipologia
 - o Ekitatearen aldeko jarduerak
 - o Inklusioaren aldeko jarduerak eta metodologiak
 - o Konpetentziak lantzeko premia handiena duten ikasleei emandako arreta, bai zailtasunak gainditzeko ikuspegitik, bai curriculum aberastearen



ikuspegitik

- Ikasleen autonomia sustatzeko jarduerak
- Balio erantsi handiko ikastetxeen jardunbide egokiak eskuratzea
- Ekintza berritzaileak
- Irakurketa Planaren ezarpenarekin lotutako jarduerak
- Eskola Jasarpena prebenitu eta etetetzeko ezarritako jarduerak

3.- Ebaluazio-prozesu hori gainditzea ezinbesteko baldintza izango da ikastetxeari baimena eman diezaioten ondorengo ikastaldietan esperientziarekin jarraitzeko.

14. artikulua.- Amaierako memoria

1.- Ikastetxeak memoria labur bat egingo du eskola-ikasturtea amaitzen den egunaren ondorengo hamabost eguneko epean. Alderdi hauek jasoko ditu memorian:

- a. Proiektuan guztira parte hartu duten ikasleen kopurua.
- b. Egindako jardueren eta jarduera horietan parte hartu duen ikasle-kopuruaren arteko erlazioa eta jarduera horiek egiteaz arduratu diren irakasleen izen-abizenak. Halaber, ikasleek jarduera horietan izan duten parte-hartzearen eta inplikazioaren nolakoa adieraziko da
- c. Proiektuaren alderdi teknikoen eta antolamenduaren ebaluazioa
- d. Iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak, egin beharrekoak irizten baldin badira.

2.- Ikastetxearen urteko memorian eta Herri-ikastetxeak/Deialdiak (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) plataforman jasoko da memoria hori.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 17an.

MIREN MAITE ALONSO ARANA
Hezkuntza Sailburuordea



I. ERANSKINA

HAUSPOA PROIEKTURAKO ESKAERAK BALIOESTEKO BAREMOA

Abenduaren 5eko 262/2017 Dekretuak arauturiko hautaketa-prozesuaren ondoren lau urteko aldirako izendaturiko zuzendaritza egonkorra duten ikastetxeak	5 puntu
BEKADUNEN EHUNEKOA %50ETIK GORAKOA	5 puntura arte
Ikasleen %30 eta %40 artean bekaduna izatea.	0,5 puntu
Ikasleen %45 eta %60 artean bekaduna izatea.	2 puntu
Ikasleen %60 baino gehiago bekaduna izatea.	3 puntu
Hamaika Esku proiektuan parte hartzen duten edo HBI baliabidea duten ikastetxeak.	5 puntu
IRAKASLERIAREN PARTE-HARTZEAREN MAILA	25 puntura arte
%50 eta %60 bitartean	5 puntu
%60 eta %70 bitartean	10 puntu
%70 eta %80 bitartean	15 puntu
80 baino gehiago	25 puntu
HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA	15 puntura arte
AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN BALIOESPENA	55 puntura arte
Proiektuaren helburuen eta ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehaztutako helburuen arteko koherentzia-maila, hobekuntza ekintzak kontuan hartuta batez ere.	5 puntura arte
Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena	5 puntura arte
Proiektuan parte-hartzea sustatzeko, ikasleen autonomia pertsonala eta eskola-giroa hobetzeko aurreikusi diren neurriak	5 puntura arte
Ikastetxeko espazioak eta baliabideak optimizatzea, ordutegien kudeaketan eta antolaketan proposamen berritzaileak eginez.	5 puntura arte



Ikastetxeetan ekitatea bermatzen laguntzen duten proposamenak, familiei kostu gehigarriak eragingo ez dieten jarduerak eskaini eta hezkidetzak sustatzeko jarduerak dituenak.	5 puntura arte
Hezkuntza inklusiboa indartzea helburu duten eta ikasteko estilo eta erritmo desberdinak kontuan hartzen dituzten jarduerak, lehenetsuz euskararen erabilera indartuz, irakurketarekin, literatura-solasaldiekin, idazketa-tailerrekin edo ahozko adierazpenarekin lotutako ekimenen bidez.	5 puntura arte
Steam Plana edo konpetentziekin loturiko jarduerak.	5 puntura arte
Eskola Jasarpena prebenitu eta etetetzeko ezarritako jarduerak.	5 puntura arte
Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako konfinamendu-egoeraren ondorioz 2019/20 ikasturtean behar adina landu ez diren curriculum-alderdietan sakontzera bideratutako jarduerak.	5 puntura arte
Curriculum arrunta aberasteko jarduerak	5 puntura arte
Balio erantsi handiko ikastetxeetako jarduerak onak eskuratzea ikasle guztien arrakasta lortze aldera: ikasleen zailtasunak goiz antzematea eta zailtasunak gaitzetzeko arin esku hartzea, ikasleen lanaren jarraipen oso estua egitea, tutoretza pertsonalizatua, familiarekin harreman estuan eta lankidetzan jardutea eta berrikuntza hainbat arlotan.	5 puntura arte

**II. ERANSKINA****IRAKASLEEN IZEN-ZERRENDA ETA PARTE-HARTZE MAILA**

Izen-abizenak	Hauspoa jarduera	Iraupena (ikasturte osoa, hiru hilabete...)	Hartzaileak (mailak)	Sinadura: Proiektuan parte hartzeko konpromezua



Jardunbide egokien zerrenda



Ikasleak (ikaste-irakaste prozesua)

- Ikasleen lanaren jarraipen eta kontrol oso estuak egitea, bete beharreko lanak argi finkaturik eta planifikaturik.
- Jarraipena tutoretzatik egiten da, familiarekin harreman estuan eta tutoretza planaren bitartez. Familiari erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eskatzen zaio eta ikasleari buruzko informazioa ematen zaio.
- Aniztasunari erantzun egokia eta ondo antolatua eskaintzen zaio (HPBko ikasleak, ikasle etorkinak, errendimendu apalekoak...) ikastetxearen berriarazko ezaugarrien arabera eta barne baliabideak egoki erabiliz: errendimendu apaleko ikasleentzako indartze eta arreta espezifikoko programak (IOLP programa, adibidez), zenbait ikastaldetan bi irakaslek batera jardutea eta abar.
- Ikasleen zailtasunak goiz antzematea eta zailtasunak gainditzeko arin esku hartzea.
- Ikasleen ebaluazioari garrantzi berezia ematea, prestakuntzako ebaluazioak sarritan eginez eta irizpideen eta gutxieneko mailen definizio argi, publiko eta kolegiatuarekin.
- Emaiza onak ez daude metodologia jakinei lotu loturik. Ikastetxe batzuetan ohiko metodologiak erabiltzen dira (testuliburua, adibidez), eta beste batzuetan berriz metodologia berritzaileagoak erabiltzen dira (askotariko metodoak, baliabideak eta ikasgela-antolakerak).

Irakasleak

- Irakasleen ardura maila altua, ikastetxearekiko eta egiten duten lan hezigarriarekiko (ez bakarrik irakaslan) inplikaziotik sortzen dena.
- Zuzendaritza taldeek antolatutako eta sustatutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntza jardueretan eginbidea eta parte hartze aktiboa (ikasten duten ikastetxeek)
- Zenbait kasutan, inplikazio handi horrez gain, kalitate programa edo proiektuetan parte hartzen dute.
- Ikastetxeko irakasleei arreta eta trataera egokia ematea, bai hasierako harreran bai beren eguneroko lanetan.
- Inplikazio maila altua eta zenbait kasutan irakasle aholkularien eta orientatzaileen lidergoa ikasleen jarraipenean eta tutoretza planean.



Jardunbide egokiak zerrenda



Ikastetxea (antolamendua, kudeaketa eta lidergoa)

- Arazo handirik gabeko eskola-giroa, irakaslana errazten duena (edo oztopatzen ez duena). Kasu batzuetan normalizat jotzen dute, eta beste kasu batzuetan ontzat edo oso ontzat jotzen dute. Azken kasu horietako batzuetan ikastetxeek esperientzia eta prestakuntza izan dute bizikidetzaren arloan eta gatazken konponbideen arloan.
- Ikastetxeek ikusmolde eta filosofia propioa dute, argi definitua eta partekatua. Zuzendaritza taldea eta klaustroa bat datoz ikusmolde horretan, eta horren ondorioz helburuak eta helburuak lortzeko baliabideak argi finkaturik daude.
- Zuzendaritza taldea hautatua edo izendatua izanda ere, ezaugarri komuna da zuzendaritzak lidergo argia erabiltzea. Lidergoa askotariko era eta estilokoa izan daiteke, baina nagusia talde-lana dela ikusten da.
- Sistematizazio eta planifikazio maila altua ikastetxearen kudeaketan eta barruko eta kanpoko koordinazioan.
- Denboraren kudeaketa egokia, bai ikasgelan ikaste-irakaste prozesuan, bai ikastetxeko giza baliabideen antolamenduan.
- Ikastetxeak garatzen dituen proiektuen, programen eta jardueren ebaluazioa. EDaren balorazio positiboa antzeman da eta baita ere ebaluazio horren prestakuntzazko erabilera.
- Zuzendaritza taldearen itzaropen handiak ikasleekiko eta irakasleekiko.